# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Foru Aginduak*

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**348**

**2/2012 FORU AGINDUA, urtarrilaren 11koa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Arraia - Maeztuko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 11. aldaketa puntuala; hain zuzen ere, hiri lurzoruko 1 poligonoko 50 lurzatiari buruzkoa (Zapi Gurutzearen kalea. Maeztu).**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2011ko azaroaren 25ean, Arraia - Maeztuko Udalaren ofizio bat jaso zen (sarrera erregistroko zenbakia: 18338). Horren bidez, aipatutako espedientea bidali zen, hala bazegokion, behin betiko onarpena eman ziezaioten.

Bigarrena.- Espedienteko agiriak aztertuta, izapideetarako funtsezkoak diren honako egitateak ondorioztatzen dira:

A) 2011ko abuztuaren 1ean, Arraia - Maeztuko Udalak erabaki zuen hasierako onarpena ematea indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioen aipatutako aldaketari; baita espediente hori 20 egunez jendaurrean jartzea ere, eta horren berri eman zen iragarki bana argitaratuta 2011ko irailaren 2ko ALHAOn (103 zk.), 2011ko abuztuaren 21eko Diario de Noticias de Álava egunkarian eta udaleko iragarki taulan.

Hasierako onarpen hori Maeztuko Administrazio Batzarrari jakinarazi zitzaion, bera baitzen espedientearen sustatzailea.

B) Espedientea jendaurrean egon zen bitartean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Horren ondorioz, udalak, 2011ko irailaren 30ean egindako bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari eta erabaki zuen hori Arabako Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena jasotzeko.

C) Prozeduraren oinarrian Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 103. eta 104. artikuluetan xedatutakoan dago, toki sistemaren kategoria beraren barruan hiri lurzoruaren kalifikazio xehatuko aldaketei dagokienez, ulertuta toki sistema horren dotazio maila gorde egiten dela eta ez dela inolako konpentsazio neurririk hartu behar.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Aldaketa Maeztuko Administrazio Batzarrak sustatzen du, bera baita eraginpeko eremuaren jabea, eta bi helburu hauek ditu:

- Bideen toki sistema: erabilera eta jabari publikoko oinezkoentzako bideak kalifikazioa aldatu eta Ekipamendurako toki sistema: Hiri zerbitzuak kalifikazioa jartzea.

- Indarreko araudira egokitzea eta 5. kapitulua “Eraikuntzaren kalitate eta higiene baldintzak” aldatzea.

Bigarrena.- Honela justifikatzen dira bi helburuak:

- Ezinezko da oinezkoentzako pasabidea egitea lurzatian, Zapi Gurutzearen kalearen eta ondoko frontoiaren artean dagoen altuera aldeagatik, eta frontoiaren espazioari ez diolako ezer ematen; ondorioz, erabilgarriagoa da hiri zerbitzuetarako jartzea.

- Eraikuntzaren kalitate eta higiene baldintzak maila goragoko indarreko araudira egokitu beharra dago, hala nola, Eraikuntzako Kode Teknikora, bereziki DB.SUA eta DB.SI oinarrizko agirietara.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Arraia - Maeztu udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 11. aldaketa puntualaren espe-

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**348**

**ORDEN FORAL 2/2012, de 11 de enero, de aprobación definitiva del expediente de la 11ª Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Arraia-Maeztu, referida a la parcela 50 polígono 1 del suelo urbano de Maestu, calle Cruz del Pañuelo.**

ANTECEDENTES

Primero.- En fecha 25 de noviembre de 2011 y número de registro de entrada 18338 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Arraia-Maeztu remitiendo el expediente de referencia con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva si procediera.

Segundo.- Del examen de los documentos que componen el expediente se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

A) Con fecha 1 de agosto de 2011, el Ayuntamiento de Arraia-Maeztu acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento vigentes, así como someter el expediente a información pública por el plazo de 20 días, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA nº 103 de 2 de septiembre de 2011, en el periódico Diario de Noticias de Álava de 21 de agosto de 2011 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Dicha aprobación inicial fue comunicada a la Junta Administrativa de Maestu, promotora del expediente.

B) Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 30 de septiembre de 2011 a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva.

C) El procedimiento tiene su fundamento en lo dispuesto en los arts. 103 y 104 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo respecto de las modificaciones en la calificación pormenorizada de suelo urbano dentro de la misma categoría de sistema local, entendiendo que el nivel dotacional de dicho sistema local se mantiene y no es necesaria ninguna medida compensatoria.

FUNDAMENTOS

Primero.- La modificación, promovida por la Junta Administrativa de Maestu, propietaria del ámbito afectado tiene 2 objetivos:

- Sustituir la calificación como Sistema Local de Comunicaciones – Vial Peatonal de Uso y Dominio Público por una nueva calificación de Sistema Local de Equipamiento – Servicios Urbanos.

- Adecuación a la Normativa vigente y modificación del Capítulo 5 “Condiciones de calidad e higiene de la edificación”.

Segundo.- Ambos aspectos se justifican:

- En que es imposible el paso peatonal por la parcela por la diferencia de alturas existente entre la c/Cruz del Pañuelo y el Frontón adyacente y no aporta nada al espacio del frontón, por lo que resulta más útil destinarlo a Servicios Urbanos.

- En la necesaria adaptación de las Condiciones de calidad e higiene de la edificación a la normativa de orden superior vigente, como es el Código Técnico de la Edificación, principalmente sus documentos básicos DB.SUA y DB.SI

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de la 11ª Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del

dientea; hain zuzen ere, hiri lurzoruko 1 poligonoko 50 lurzatiari buruzkoa (Zapi Gurutzearen kalea. Maeztu).

Bigarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta horren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, eta horretarako bi hilabeteko epea egongo da jakinarazpen edo argitalpen egunaren hurrengotik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 11.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

**IDAZKERA BERRIA: "5. KAPITULUA.- ERAIKUNTZAREN KALITATE ETA HIGIENE BALDINTZAK"**

5. kapitulua.- ERAIKUNTZAREN KALITATE ETA HIGIENE BALDINTZAK

*1. atala. Eraikuntza alderdiak, establezimendu publikoak eta jolas jarduerak*

1. idatz zatia. Aurrekariak

**136. artikulua.- Definizioa.**

Eraikuntzaren kalitate eta higiene baldintzak dira eraikuntza era egokian burutzeko eta pertsonek lokal horiek erabiltzeko osasungarritasun neurriak bermatzeko ezarri direnak.

**137. artikulua.- Aplikazioa.**

Kalitateari eta higieneari buruzko baldintzak oin berriko obrei, eraikuntza berrikoei, eraberritzekoei eta eraikuntzakoei aplikatuko zaizkie.

Gainerako eraikuntza esku-hartze guztiei ere aplikatuko zaizkie, arau hauen 17. artikuluan adierazitako hedaduraren arabera.

**138. artikulua.- Baldintza orokorrak.**

Arau hauekin batera orain indarrean dauden edo inoiz egon daitezkeen arautegietan edo eraikinen kalitateari buruzko arlokako oinarrizko arauetan kalitateari eta higieneari buruz adierazten diren baldintzak bete beharko dira.

**139. artikulua.- Aplikazio eremua.**

Ordenantza honetan jasotako aginduak nahitaez bete beharko dituzte establezimendu publikoek eta jolas jarduerekin zerikusia duten establezimenduek.

Gainera, aplikatzekoa da Irisgarritasuna sustatzeko legearen garapena, hau da, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, zeinek onartzen dituen hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak. Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen garapena.

**140. artikulua.- Araubide iragankorra.**

Ordenantza hau eman aurretik zeuden establezimenduek, bertan ezarritakoarekin bat ez badatoz, horretara egokitu beharko dute, honelaxe:

a) Bi urteko epean, indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita.

b) Interesdunak obra baimena eskatzen badu, establezimenduan erreformak egiteko.

c) Titularra aldatzen bada, irekitzeko baimen berria emateko aurretiazko baldintza gisa.

**141. artikulua.- Egokitzapena egiteko prozedura.**

Aurreko artikuluan aipatutako egokitzapena egiteko jarraitu behar den administrazio prozedura hauxe da:

a) Jarduerak instalazio proiektua badu, teknikari eskudunak egindako horren eranskina bikoizki aurkeztuko da eta bertan establezimendua ordenantzari egokitzeko beharrezko diren aldaketak jasoko dira. Udalak aldaketa horien aldeko txostena egiten badu, bidezko izapideak egin ondoren, obra baimena emango da.

municipio de Arraia-Maeztu, referida a la parcela 50 polígono 1 del suelo urbano de Maestu C/Cruz del Pañuelo.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 11 de enero de 2012.– La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

**NUEVA REDACCIÓN DEL "CAPÍTULO 5.- CONDICIONES DE CALIDAD E HIGIENE DE LA EDIFICACIÓN"**

Capítulo 5.- CONDICIONES DE CALIDAD E HIGIENE DE LA EDIFICACIÓN

*Sección 1ª. Aspectos constructivos, establecimientos públicos y actividades recreativas*

Apartado 1. Preliminares

**Artículo 136.- Definición.**

Las condiciones de calidad e higiene de la edificación son aquéllas que se establecen para garantizar el buen hacer constructivo y la salubridad en la utilización de los locales por las personas.

**Artículo 137.- Aplicación.**

Las condiciones de calidad e higiene son de aplicación a las obras de nueva planta, reedificación, reforma y edificación.

Serán también de aplicación en el resto de intervenciones constructivas, en función del alcance señalado en el artículo 17 de estas Normas.

**Artículo 138.- Condicionamiento general.**

Las presentes Normas remite el señalamiento de las condiciones de calidad e higiene al cumplimiento de cuantos Reglamentos, Normas Básicas de Calidad de la Edificación Sectoriales, estén vigentes o puedan estarlo en un futuro.

**Artículo 139.- Ambito de aplicación.**

Las prescripciones recogidas en la presente Ordenanza son de obligatoria observancia tanto para los Establecimientos Públicos como para las Actividades Recreativas.

Además, es de aplicación el desarrollo de la Ley para la Promoción de la Accesibilidad: Decreto 68/2000, de 11 de abril, del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, por el que se aprueban las Normas Técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación. Desarrollo de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre sobre Promoción de la Accesibilidad.

**Artículo 140.- Régimen transitorio.**

Aquellos establecimientos existentes con anterioridad a la promulgación de la presente Ordenanza, y que no se ajusten a lo dispuesto en la misma, deberán adaptarse a ella en las circunstancias siguientes:

a) En el plazo de 2 años, a partir de su entrada en vigor.

b) En caso de solicitarse por el interesado Licencia de Obras para efectuar reformas en el establecimiento.

c) En los casos de los cambios de titularidad, como requisito previo para la concesión de la nueva Licencia de Apertura.

**Artículo 141.- Procedimiento para la adaptación.**

El procedimiento administrativo a seguir para controlar la adaptación a que se alude en el artículo anterior, será el siguiente:

a) Si la actividad dispone de Proyecto de Instalación, se presentará por duplicado un Anexo al mismo, ejecutado por técnico competente, en el que se recojan las modificaciones necesarias para la adaptación del establecimiento a la Ordenanza. Si estas modificaciones son informadas favorablemente por el Ayuntamiento, se concederá, previos los trámites oportunos, la Licencia de Obras.

Obrak egin ondoren, titularrak horren berri emango dio udalari, teknikari batek egiaztatze bisitaldia egin dezan. Horren ondoriozko txostena aldekoa bada, establezimenduaren titularrari 142. artikuluan aipatzen den kontrol plaka emango zaio.

b) Jarduerak ez badu instalazio proiekturik eta establezimendua 140. artikuluan aipatzen diren a) eta b) inguruabarren ondorioz egokitu behar bada, artikulu honetako a) idatz zatian esan bezala jokatuko da. Aurkeztutako agiriak artxibatuta geratuko dira establezimendua kalterik gabe irekitzeko udal baimenari dagokion espedientean.

Establezimendua egokitu behar bada 140. artikuluko c) kasua delako, instalazio proiektua aurkeztuko da, irekiera balitz bezala.

**142. artikulua.- Kontrol plaka jartzea.**

Ordenantza hau indarrean sartu eta 2 urteko epean, establezimendu guztiek kontrol plaka jarri beharko dute lokalerako ohiko sarbidearen ondoan, lurretik 1,80 m-ra. Plaka hori, eta horren fotokopia, udalak emango ditu, honako kasuetan:

a) Irekiera berriko jarduerak direnean.- Irekierako udal baimenarekin batera emango da.

b) Jada badauden jarduerak direnean.- Honako agiriak aurkeztu behar dira:

* Irekierako udal lizentzia (kalterik gabekoa edo gogaikarria).

* Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

* Teknikari eskudunak izenpetutako txostena; bertan, jarduera ordenantza honetan ezarritako aginduekin bat datorrela egiaztatuko da. Txosten horretan establezimenduak hartzen duen guztizko azalera eraikia zehaztuko da.

Txosten horretan adierazten bada komeni dela establezimenduan aldaketak egitea ordenantza honetako baldintzetara egokitzeko, 141. artikuluan deskribatutako prozedura amaitutakoan emango da kontrol plaka.

**143. artikulua.- Zehapen espedientea.**

Bi urte igarotakoan, kontrol plaka eskatu ez duten establezimendu guztiei zehapen espedientea irekiko zaie; eta alegazioak aurkezteko epea eman eta gero, jarduera itxi ere egin daiteke.

**144. artikulua.- Kontrol plaka mantentzea.**

Kontrol plakan adierazten diren datu guztiak irakurterrazak izango dira. Datu horietakoren bat ezabatzen bada edo aldatu egin dela ikusten bada, jardueraren titularrak beste plaka bat eskatu beharko du. Zehapena ere ezarri dakioke, gertaeraren inguruabarrak kontuan hartuta.

**145. artikulua.- Egokitzapena egitetik salbuestea eta neurri zuzentzaileak.**

140. artikuluan aipatzen den egokitzapena egitea ezinezkoa bada, udalak, bertako zerbitzu teknikoek proposatuta, baldintzatu egingo du jarduerak aurrera egitea, egoki iritzitako neurri zuzentzaileak bete beharrarekin, pertsonen eta ondasunen babesa eta segurtasuna bermatzeko.

**146. artikulua.- Establezimenduak kategoriatan sailkatzea.**

Establezimenduek betekizun ezberdinak dituzte, beren kategoriaren arabera. Ordenantza honen ondorioetarako, ondoko definizio hauek ezartzen dira:

Azalera erabilgarri publikoa.

Azalera erabilgarri publikoa izango da establezimendu baten barrualdean, pertsonak egoteko eta establezimenduaz gozatzeko dena, kontuan hartu gabe erakusmahaia, sukaldea, jantzitegia, biltegia, bulegoak eta komunak, eta sarbide murriztuko beste gela batzuk.

Gehienezko edukiera.

Lokal baten gehienezko edukiera izango da azalera erabilgarri publikoan sar daitekeen pertsona kopurua. Okupazio hori kalku-

Una vez realizadas las obras, se notificará por el titular tal circunstancia al Ayuntamiento, a fin de que se realice una visita de comprobación. Si el informe realizado tras esta visita es favorable, se concederá al titular del establecimiento la Placa de Control a que hace alusión el artículo 142.

b) Si la actividad no dispone de Proyecto de Instalación y la adaptación del establecimiento se realiza en base a las circunstancias a) y b) previstas en el artículo 140, se procederá como en el apartado a) de este artículo. La documentación presentada quedará archivada en el expediente que contiene la Licencia Municipal de Apertura Inocua del establecimiento en cuestión.

En caso de que el motivo de la adaptación sea el supuesto c) del artículo 140 se presentará Proyecto de Instalación como si de una apertura se tratara.

**Artículo 142.- Exhibición de la Placa de Control.**

En el plazo de 2 años a partir de la entrada en vigor de esta Ordenanza, todos los establecimientos deberán colocar junto al acceso habitual del local y a una altura de 1,80 metros, la Placa de Control del mismo. Esta placa, junto con una fotocopia de la misma, se concederá por el Ayuntamiento en las siguientes circunstancias:

a) Actividades de nueva apertura.- Se concederá conjuntamente con la Licencia Municipal de Apertura.

b) Actividades ya existentes.- Presentando la siguiente documentación:

* Licencia Municipal de Apertura (Inocua o molesta).

* Impuesto de Actividades Económicas.

* Informe suscrito por técnico competente, en el que certifique que la actividad se ajusta a las prescripciones establecidas en esta Ordenanza. En este informe se detallará la superficie total construida que ocupa el establecimiento.

Si en este informe se contempla la necesidad de realizar modificaciones en el establecimiento a fin de adaptarlo a las exigencias de esta Ordenanza, se concederá la Placa de Control una vez finalizado el procedimiento descrito en el artículo 141.

**Artículo 143.- Expediente sancionador.**

A todos aquellos establecimientos que transcurrido el plazo de dos años no hayan solicitado la Placa de Control, se les incoará expediente sancionador, tras cuyo plazo de alegaciones podrá decretarse incluso la clausura de la actividad.

**Artículo 144.- Mantenimiento de la Placa de Control.**

Todos los datos que figuran en la Placa de Control se encontrarán perfectamente legibles. Si alguno de ellos se encontrara borrado o con síntomas de haber sido modificado, será obligación del titular de la actividad solicitar una nueva placa, sin perjuicio de la sanción que pudiera aplicársele, según las circunstancias que concurrieran en el hecho.

**Artículo 145.- Exención de la adaptación y medidas correctoras.**

Si la adaptación de los establecimientos existentes a que se alude en el artículo 140 fuera de imposible cumplimiento, el Ayuntamiento, a propuesta de los Servicios Técnicos Municipales, condicionará la continuación de la actividad al cumplimiento de las medidas correctoras que estime convenientes para garantizar la protección y seguridad de las personas y los bienes.

**Artículo 146.- Clasificación de los establecimientos en categorías.**

Los requisitos exigidos a los distintos establecimientos serán en función de la Categoría de los mismos. A los efectos de la presente ordenanza se establecen las definiciones siguientes:

Superficie útil pública.

Se entenderá por superficie útil pública en el interior de un establecimiento la destinada a la estancia de las personas y disfrute del establecimiento, no computándose como tal las destinadas a mostrador, cocina, guardarropa, almacén, oficinas, servicios (W.C.) y otras dependencias de acceso restringido.

Capacidad máxima.

Se entenderá por capacidad máxima de un local el número de personas que es susceptible de acoger en la superficie útil pública.

latzeko, pertsona baten okupazioa metro koadro biderkatuko da azalera erabilgarri publikoarekin.

Azalerak.

Lokalaren azalera erabilgarri publikoaren arabera, sailkapen hau finkatzen da:

A klasea 10-40 $m^2$
B klasea 41-80 $m^2$
C klasea 81-120 $m^2$
D klasea 121-250 $m^2$
E klasea 250 $m^2$ baino gehiago

**147. artikulua.- Edukierari buruzko zehaztapenak.**

Establezimendu baten edukiera EKTko DB-SI agirian finkatutakoaren arabera zehaztuko da.

Jardueraren titularra izango da bere establezimenduaren okupazio maila etengabe kontrolatzeko arduraduna. Okupazio mailak ezin du inoiz instalazio baimenean edo kontrol plakan adierazten den edukiera gainditu.

**148. artikulua.- Kategoria aldaketa.**

Establezimenduaren titularrak horren azalera eraikia gehitzea erabakitzen badu, eta handitze horrek establezimendua kategoriaz aldatzea badakar, lokalean beharrezko aldaketak egin beharko ditu, kategoria berriari dagozkion baldintzetara egokitu dadin.

Ordenantza hau onetsi baino lehen zeuden establezimenduetako erreformak edo egokitzapenak soilik zati, zerbitzu edo instalazio batzuk ordenantzan ezarritakoarekin bat etortzeko egingo dira eta, beraz, ez dira baimenduko erreforma edo egokitzapen lanek ukitzen dituzten lehengo ezaugarriak finkatzeko obrarik, ezaugarri horiek ordenantza honetan xedatutakoarekin bat ez badatoz.

**149. artikulua.- Establezimenduetan eskuragarri dauden agiriak.**

Establezimenduetan honako agiriak ikusi ahal izango dira beti:

* Irekitzeko udal baimena.
* Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
* Kontrol plakaren fotokopia (izanez gero).
* Suteei aurre egiteko beharrezko instalazioei buruzko mantentze kontratua, enpresa espezializatuarekin izenpetua.
* Arau hauen 142. artikuluari dagozkion txostenak.

2. idatz zatia. Egiturazko betekizunak

**150. artikulua.- Sestra peko lokalak.**

Kanpoko sestraren maila baino beherago dauden lokalak ordenantza honetan aipatzen diren jardueretako batzuetarako bakarrik erabili ahal izango dira, maila horren eta establezimenduaren zoruaren arteko aldea 4 m baino gutxiagokoa denean.

**151. artikulua.- Sarbideko eskaileren eraikuntza baldintzak eta baldintza teknikoak.**

Establezimendu hauetako eskailerek EKTko DB SUA eta DB SI agirietan finkatutako betekizunak beteko dituzte.

**152. artikulua.- Sarbideko ateen eraikuntza baldintzak eta baldintza teknikoak.**

Establezimenduetara sartzeko ate edo ate talde guztiek EKTko DB SUA eta DB SI agirietan finkatutako betekizunak beteko dituzte.

**153. artikulua.- Sarbideen gutxienezko zabalera librea.**

Establezimenduetara sartzeko ate edo ate talde guztiek EKTko DB SUA eta DB SI agirietan finkatutako betekizunak beteko dituzte.

**154. artikulua.- Sarbideko arrapalen eraikuntza baldintzak.**

Establezimenduetako sarbideko arrapalek EKTko DB SUA eta DB SI agirietan finkatutako betekizunak beteko dituzte.

**155. artikulua.- Sarbideko ate bikoitzen baldintzak.**

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Politika eta Garraio Sailaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak 1. ataleko 1. kapituluko 3.2.3

El cálculo de esta ocupación se realizará aplicando una ocupación de una persona por metro cuadrado a la superficie útil pública.

Superficies.

En función de la superficie útil pública del local, se establece la clasificación siguiente:

Clase A de 10-40 $m^2$
Clase B de 41-80 $m^2$
Clase C de 81-120 $m^2$
Clase D de 121-250 $m^2$
Clase E más de 250 $m^2$

**Artículo 147.- Determinaciones del Aforo.**

El aforo de un establecimiento se determinará conforme a lo señalado en el DB-SI del CTE.

El titular de la actividad será el responsable del control permanente del grado de ocupación de su establecimiento, a fin de que no se supere el aforo asignado al mismo que figura en su Licencia de Instalación o bien en su correspondiente Placa de Control.

**Artículo 148.- Cambio de categoría.**

Si el titular de un establecimiento decidiera ampliar la superficie construida del mismo, y esta ampliación suponga un cambio de Categoría del establecimiento, deberá realizar las modificaciones necesarias en el local, de modo que se ajuste a las condiciones establecidas para la nueva Categoría adquirida.

Toda obra de reforma o adaptación de los establecimientos ya existentes con anterioridad a la aprobación de esta Ordenanza, deberá servir para poner en armonía con la misma, las partes, servicios o instalaciones a que afecte, y por consiguiente, no se autorizarán obras que consagren las características antiguas, afectadas por la reforma o adaptación, cuando tales características no estén de acuerdo con lo dispuesto en esta Ordenanza.

**Artículo 149.- Documentación disponible en los establecimientos.**

En los establecimientos deberán encontrarse en todo momento los siguientes documentos:

* Licencia Municipal de Apertura.
* Impuesto de Actividades Económicas.
* Fotocopia de la Placa de Control (en caso de disponer de ella).
* Contrato de mantenimiento, suscrito con empresa especializada, de las instalaciones exigidas para la lucha contra incendios.
* Informes a que se refiere el artículo 142 de estas Normas.

Apartado 2. Requisitos de tipo estructural

**Artículo 150.- Locales por debajo de la rasante.**

Los locales situados por debajo del nivel de la rasante exterior, solo podrán ser utilizados para algunas de las actividades recogidas en esta Ordenanza cuando la diferencia entre el nivel citado y el de suelo del establecimiento sea inferior a 4 m.

**Artículo 151.- Condiciones constructivas y técnicas de las escaleras de acceso.**

Las escaleras de estos establecimientos cumplirán con los requisitos establecidos en DB SUA y DB SI del CTE

**Artículo 152.- Condiciones constructivas y técnicas de las puertas de acceso.**

Todas las puertas o conjunto de puertas de acceso a los establecimientos, cumplirán con los requisitos establecidos en DB SUA y DB SI del CTE

**Artículo 153.- Ancho libre mínimo de los accesos.**

Todas las puertas o conjunto de puertas de acceso a los establecimientos, cumplirán con los requisitos establecidos en DB SUA y DB SI del CTE

**Artículo 154.- Condiciones constructivas de las rampas de acceso.**

Las rampas de acceso a los establecimientos, cumplirán con los requisitos establecidos en DB SUA y DB SI del CTE

**Artículo 155.- Condiciones de dobles puertas de acceso.**

Las actividades que deban poseer doble puerta de acceso según lo regulado por la Sección 1ª, Capitulo 1º, punto 3, 2, 3 del Decreto

puntuan arautzen duenaren arabera, sarbideko bi ate izan behar dituzten jarduerek bete beharko dute ate horiek kanporantz irekitzea eta horien arteko gutxieneko distantzia 1,20 m-koa izatea, orriek 80 cm-ko zabalera dutenean, eta 1,60 m-koa, berriz, 120 cm-ko zabalera dutenean.

**156. artikulua.- Sestrarekiko kokapena, kategorien arabera.**

Ordenantza honen ondorioetarako, establezimendua, edo erabilera publikokoa den bertako zona bat, kanpoko sestrarekiko maila ezberdinean dagoela esango da mailen arteko aldea jarraian aipatzen diren balioen gainetik dagoenean:

• A kategoriako establezimenduei dagokienez: 120 cm.
• B eta C kategorietako establezimenduei dagokienez: 100 cm.
• D eta E kategorietako establezimenduei dagokienez: 80 cm.

**157. artikulua.- Sestra kontuan hartuta A kategorian sailkatzen diren sarbideek bete beharreko baldintzak.**

1.- A kategoriako establezimenduetara sartzeko ateak, kanpoko sestraren maila berean kokatuta, 90 cm-ko zabalera izango du gutxienez. Aukeran egongo da kanporantz edo barrurantz irekitzen den atea jartzea.

2.- Establezimendua kanpoko sestrarekiko maila ezberdinean badago, eta bertara sartzeko eskailera edo arrapala behar bada, elementu horien zabalera 150 cm-koa izango da gutxienez. Kasu hauetan bertara heltzeko atea kanporantz irekiko da.

3.- Gutxieneko garaiera 2,80 m-koa izango da eta, establezimenduan nonbait elementu mailakatuak edo apaindurazkoak badaude, leku horretan garaiera librea ez da 2,5 metrotik beherakoa izango.

4.- EKTko DB SUA eta DB SI agirietan finkatutako betekizunak beteko dituzte betiere.

**158. artikulua.- Sestra kontuan hartuta B kategorian sailkatzen diren sarbideek bete beharreko baldintzak.**

1.- B kategoriako establezimenduetara sartzeko ateak, kanpoko sestraren maila berean kokatuta, 90 cm-ko zabalera izango du gutxienez eta kanporantz irekiko da.

2.- Establezimendua kanpoko sestrarekiko maila ezberdinean badago, eta bertara sartzeko eskailera edo arrapala behar bada, elementu horien zabalera 150 cm-koa izango da gutxienez eta binaka jarriko dira. Kasu horietan, sarbideko bi ateen erdiguneen artean gutxienez 3 m-ko aldea utziko da fatxada lerrotik neurtuta. Halaber, bi eskailerak hasten diren guneen artean ere gutxienez 3 m-ko distantzia egongo da.

3.- Establezimenduaren gutxieneko garaiera 2,80 m-koa izango da eta, nonbait elementu mailakatuak edo apaindurazkoak badaude, leku horretan garaiera librea ez da 2,50 metrotik beherakoa izango.

4.- EKTko DB SUA eta DB SI agirietan finkatutako betekizunak beteko dituzte betiere.

**159. artikulua.- Sestra kontuan hartuta C kategorian sailkatzen diren sarbideek bete beharreko baldintzak.**

1.- C kategoriako establezimenduetara sartzeko ateak, kanpoko sestraren maila berean kokatuta, 120 cm-ko zabalera izango du gutxienez eta kanporantz irekiko da. Bi orriko ateak jarri ahal izango dira, nahiz eta hala eginez gero, orri bakoitzaren gutxieneko zabalera 90 cm-koa izan beharko duen. Halaber, B kategoriako lokaletarako aipatu diren ezaugarriak dituzten bi ate jarri ahal izango dira. Establezimenduaren gutxieneko garaiera 3 m-koa izango da eta, nonbait elementu mailakatuak edo apaindurazkoak badaude, leku horretan garaiera librea ez da 2,70 metrotik beherakoa izango.

2.- Establezimendua kanpoko sestrarekiko maila ezberdinean badago, eta bertara sartzeko eskailera edo arrapala behar bada, elementu horien zabalera 150 cm-koa izango da gutxienez eta binaka jarriko dira. Kasu horietan, sarbideko bi ateen erdiguneen artean gutxienez 5 m utziko da, fatxada-lerrotik neurtuta. Halaber, bi eskailera hasten diren guneen artean gutxienez 5 m-ko distantzia utziko da.

3.- Establezimenduaren gutxieneko garaiera 3 m-koa izango da eta, nonbait elementu mailakatuak edo apaindurazkoak badaude, leku horretan garaiera librea ez da 2,70 metrotik beherakoa izango.

171/1985 de 11 de Junio del Departamento de Política Territorial y Transportes del Gobierno Vasco, cumplirán que su sentido de apertura se realizará hacia el exterior en ambas puertas, y la distancia mínima entre ellas será de 1,20 m. si las hojas son de 80 cm. y de 1,60 m. si las hojas son de 120 cm. de anchura.

**Artículo 156.- Relación respecto a la rasante según Categorías.**

A los efectos de esta Ordenanza se considera que un establecimiento, o zona del mismo de uso público, está a distinto nivel de la rasante exterior, cuando la diferencia de niveles sea superior a los valores que se establecen a continuación:

• Establecimiento de Categoría A: 120 cm.
• Establecimientos de Categorías B y C: 100 cm.
• Establecimientos de Categorías D y E: 80 cm.

**Artículo 157.- Condiciones de los accesos en Categoría A respecto a la rasante.**

1.- La puerta de acceso a los establecimientos de Categoría A, situados al mismo nivel de la rasante exterior, tendrá una anchura mínima de 90 cm. El sentido de apertura podrá realizarse indistintamente hacia adentro o hacia afuera.

2.- Cuando el establecimiento se encuentra a distinto nivel de la rasante exterior y el acceso haya de realizarse mediante escalera o rampa, el ancho mínimo de estos elementos será de 150 cm. En estos casos la puerta de acceso abrirá hacia el exterior.

3.- La altura mínima será de 2,80 m. y si existieran elementos escalonados o decorativos en algún punto del establecimiento, la altura libre en este punto no podrá ser inferior a 2,5 metros.

4.- En todo caso, cumplirán con los requisitos establecidos en DB SUA y DB SI del CTE

**Artículo 158.- Condiciones de los accesos en Categoría B respecto a la rasante.**

1.- La puerta de acceso a los establecimientos de Categoría B, situados al mismo nivel de la rasante exterior, tendrá una anchura mínima de 90 cm. y el sentido de la apertura será hacia el exterior.

2.- Cuando el establecimiento se encuentre a distinto nivel de la rasante exterior y el acceso haya de realizarse mediante escaleras o rampas, estos elementos se instalarán en número de 2, con una anchura mínima de 150 cm. cada elemento. En estos casos existirá entre los centros de las dos puertas de acceso una distancia mínima de 3 m. medida en línea de fachada. Así mismo, existirá una distancia mínima de 3 m. entre los centros de arranques de ambas escaleras.

3.- La altura mínima del establecimiento será de 2,80 m. y si existieran elementos escalonados o decorativos en algún punto del mismo, la altura libre en ese punto no podrá ser inferior a 2,50 m.

4.- En todo caso, cumplirán con los requisitos establecidos en DB SUA y DB SI del CTE

**Artículo 159.- Condiciones de los accesos en Categoría C respecto a la rasante.**

1.- La puerta de acceso a los establecimientos de Categoría C, situados al mismo nivel de la rasante exterior, tendrá una anchura mínima de 120 cm. y el sentido de apertura de la misma será hacia el exterior. Podrá optarse por colocar puertas de doble hoja, pero en este caso la anchura mínima de cada hoja será de 90 cm. Asimismo podrán colocarse dos puertas con las características señaladas para los locales de Categoría B. La altura mínima del establecimiento será de 3 m., y si existieran elementos escalonados o decorativos en algún punto del mismo, la altura libre en ese punto no será inferior a 2,70 metros.

2.- Cuando el establecimiento se encuentra a distinto nivel de la rasante exterior y el acceso se realice mediante escaleras o rampas, estos elementos se instalarán en número de dos, con una anchura mínima de 150 cm. cada elemento. En estos casos la distancia existente entre los centros de las dos puertas de acceso, medida en la línea de fachada, no será inferior a 5 m. Asimismo existirá una distancia mínima de 5 metros entre los centros de los arranques de ambas escaleras.

3.- La altura mínima del establecimiento será de 3 m., y si existieran elementos escalonados o decorativos en algún punto del mismo, la altura libre en ese punto no será inferior a 2,70 metros.

4.- EKTko DB SUA eta DB SI agirietan finkatutako betekizunak beteko dituzte betiere.

**160. artikulua.- Sestra kontuan hartuta D kategorian sailkatzen diren sarbideek bete beharreko baldintzak.**

1.- A kategoriako establezimenduetarako sarbideak, kanpoko sestraren maila berean kokatuta, 180 cm-ko zabalera izango du gutxienez. Gutxieneko zabalera hori kontuan hartuta bi orriko atea jartzen bada, orriak simetrikoak izango dira.

2.- Kasu guztietan, ateak kanporantz irekiko dira.

3.- Establezimenduaren gutxieneko garaiera 3,20 m-koa izango da eta, nonbait elementu mailakatuak edo apaindurazkoak badaude, leku horretan garaiera librea ez da 2,80 metrotik beherakoa izango.

4.- EKTko DB SUA eta DB SI agirietan finkatutako betekizunak beteko dituzte betiere.

**161. artikulua.- Sestra kontuan hartuta E kategorian sailkatzen diren sarbideek bete beharreko baldintzak.**

1.- EKTko DB SUA eta DB SI agirietan finkatutako betekizunak beteko dituzte betiere.

2.- Kasu guztietan, ateak kanporantz irekiko dira.

3.- Establezimenduaren gutxieneko garaiera 3,20 m-koa izango da eta, nonbait elementu mailakatuak edo apaindurazkoak badaude, leku horretan garaiera librea ez da 2,80 metrotik beherakoa izango.

**162. artikulua.- Solairuen arteko sarbideak.**

Kanpoko sestrarekiko maila berean dauden establezimenduetan, maila ezberdinetan dauden erabilera publikoko beste solairu batzuk izanez gero, solairu batetik bestera eta solairu batetik kalera joateko bideak diseinatuko dira, jarraian aipatzen den prozedurarekin bat etorriz:

a) Maila ezberdinean kokatutako solairuaren kategoria zehaztuko da eta, horren arabera, solairu horrek behar dituen sarbide kopurua eta horien zabalera. Gogoan izan behar da sarbide horietatik gutxienez erdiak (edo erdiak gehi batek, kopurua bakoitia bada) kanpoaldera eman behar duela. Baldintza hau betetzetik salbuesten dira A kategoriako solairuak.

b) Kanpoko sestrarekiko maila berean dagoen solairura heltzeko zuzeneko sarbideen kopurua zehaztuko da, bai eta horietako bakoitzaren gutxieneko zabalera ere. Horretarako, gogoan izango da solairuaren kategoria finkatzeko, bere azalerari maila ezberdinean kokatutako solairuan hartzen duen azalera eraikiaren ehuneko 50 gehituko zaiola.

**163. artikulua.- Irteerak.**

1.- A, B, C eta D kategorietako establezimenduen irteera guztiek bide publikoetara edo espazio irekietara emango dute, ezbeharren bat gertatuz gero, laguntza-zerbitzuetako ibilgailuek bertara heldu ahal izateko. Irteeraren batek baldintza hau betetzen ez badu, ez da irteeratzat hartuko.

2.- E kategoriako establezimenduetan fatxadek eta irteera nagusiak bide publikoetara edo ibilgailuen zirkulaziorako egokiak diren espazio irekietara emango dute eta horien kopurua eta zabalera, nagusiki fatxadaren erdialdetik neurtuta, honakoak izango dira:

a) Edukiera 300 pertsona baino gutxiagokoa bada, bide publikora edo espazio irekira ematen duten fatxadak eta irteerak 7 metroko zabalera izango dute.

b) Edukiera 300 eta 700 pertsona bitartean badago, bide publikora edo espazio irekira ematen duten fatxadak eta irteerak 12,50 metroko zabalera izango dute.

c) Edukiera 700 eta 1.500 pertsona bitartean badago, bi bide publiko edo espaziotara edo gehiagotara ematen duten fatxadak eta irteerak gutxienez ere 7 metroko zabalera izango dute, eta osoa ez da 30 metro baino gutxiagokoa izango.

d) Edukiera 1.500 pertsonatik gorakoa bada, bi bide publiko edo espazio irekitara (edo gehiagotara) ematen duten fatxadak eta irteerak gutxienez 12,50 metroko zabalera izango dute. Fatxadak eta irteerak batera izango duten zabalera kalkulatzeko, 30 m-ri metro bat gehitu behar zaio 1.500 pertsonako edukiera gainditzea ekartzen duen 100 pertsonako multzo bakoitzeko.

4.- En todo caso, cumplirán con los requisitos establecidos en DB SUA y DB SI del CTE

**Artículo 160.- Condiciones de los accesos en Categoría D respecto de la rasante.**

1.- El acceso a los establecimientos en Categoría D, situados al mismo nivel de la rasante exterior, tendrá una anchura mínima de 180 cm. Si esta anchura mínima se salva mediante puerta de doble hoja, ambas hojas serán simétricas.

2.- En todos los casos, la apertura de las puertas se realizará hacia el exterior.

3.- La altura mínima del establecimiento será de 3,20 m. y si existieran elementos escalonados o decorativos en algún punto del mismo la altura libre en ese punto no será inferior a 2,80 m.

4.- En todo caso, cumplirán con los requisitos establecidos en DB SUA y DB SI del CTE

**Artículo 161.- Condiciones de los accesos en Categoría E respecto a la rasante.**

1.- En todo caso, cumplirán con los requisitos establecidos en DB SUA y DB SI del CTE

2.- En todos los casos la apertura de las puertas se realizará hacia el exterior.

3.- La altura mínima del establecimiento será de 3,20 metros, y si existieran elementos escalonados o decorativos en algún punto del mismo, la altura libre en ese punto no será inferior a 2,80 metros.

**Artículo 162.- Accesos entre distintas plantas.**

En aquellos establecimientos situados al mismo nivel de la rasante exterior y que dispongan de otras plantas destinadas a uso público situadas a distinto nivel, se diseñarán los accesos entre las distintas plantas y entre éstas y el exterior, conforme al siguiente procedimiento:

a) Se determinará la Categoría de la planta situada a distinto nivel y, en función de ella, el número y anchura de los accesos que necesita la citada planta, teniendo en cuenta que al menos la mitad de éstos accesos (la mitad más uno si resultarán impares) deberán dirigirse directamente al exterior. Se exceptúan de esta condición las plantas de Categoría A.

b) Se determinará el número de accesos directos a la planta situada al mismo nivel de la rasante exterior, así como la anchura mínima proporcionada por los mismos. Para ello se tendrá en cuenta que la Categoría de esta Planta se determinará añadiendo a su propia superficie el 50 por ciento de la superficie construida en la planta situada a distinto nivel.

**Artículo 163.- Salidas.**

1.- Todas las salidas de los establecimientos de Categorías A, B, C y D se dirigirán a vías públicas o espacios abiertos hasta los que puedan llegar los vehículos de auxilio en caso de siniestro. Si alguna salida no cumpliera esta condición, su existencia no computará como tal.

2.- Los establecimientos de Categoría E se construirán con fachadas y salida a vías públicas o espacios abiertos aptos para la circulación rodada cuyo número y anchura mínima, medida normalmente en el punto medio de la fachada, serán los siguientes:

a) Si el aforo no excede de 300 personas, fachada y salida a una vía pública o espacio abierto de 7 metros de ancho.

b) Si el aforo excede de 300 personas y no es superior a 700, fachada y salida a una vía pública o espacio abierto de 12,50 metros de ancho.

c) Si el aforo excede de 700 personas y no es superior a 1.500 personas, fachada y salida a dos o más vías públicas o espacios, cuya anchura mínima sea de 7 metros y la conjunta no sea inferior a 30 metros.

d) Si el aforo excede de 1.500 personas, fachada y salida a dos o mas vías públicas o espacios abiertos cuya anchura mínima sea de 12,50 metros, y la anchura conjunta el resultado de sumar a 30 m. un metro más por cada 100 personas que el aforo exceda de 1.500 personas.

**164. artikulua.- Kategoria guztietako komunen baldintzak.**

Ostalaritzako establezimendu guztiek jendeari irekitako higiene zerbitzuak izango dituzte, komunekin eta komun aurrekoekin.

Komuntzat hartzen da komun ontzia dagoen esparrua, eta komun aurretzat komuna baino lehenagoko espazioa, komuna lokaletik bereizten duena eta elikagaien manipulazio, bilketa edo kontsumo lokalekin komunikatzea eragozten duena.

Komun aurrean konketa bat jarriko da gutxienez, ur bero eta hotzarekin, xaboi likidoa, erabilera bakarreko eskuak lehortzeko sistema eta, hala badagokio, paperontzia.

Komunak bi sexuentzat bereizita egongo dira, eta zerbitzu higienikoek ondorengo baldintza hauek beteko dituzte:

**165. artikulua.- A, B, eta C kategorietako komunen baldintzak.**

A kategorian: komun egokitu bat, komun aurrearekin edo gabe, komuneko ateak zuzenean ematen ez badu lokalera edo sukaldera.

B eta C kategorietan: bi komun (1 egokitua), komun aurrearekin bientzat.

**166. artikulua.- D eta E kategorietako komunen baldintzak.**

D kategorian: bi komun, komun aurrearekin bientzat, bina komun ontzirekin (1 egokitua).

E kategorian: bi komun, komun aurrearekin bientzat, eta launa komun ontzirekin (1 egokitua).

*2. atala. Instalazioetako betekizunak.*

**167. artikulua.- Aire berriztapenaren definizioa.**

Ordenantza honen ondorioetarako, aire berriztapena izango da jendearen aisiarako diren establezimenduetako zonak aireztatzea. Aire berriztapena berez edo gailuren baten bidez egin daiteke, betiere, kasuan-kasuan ezartzen diren mugak kontuan hartuta.

**168. artikulua.- Berriztapen mota onargarriak.**

